



AKTA

| | |
|----------------------|------------------------|
| Espediente-zk.: | Kide anitzeko organoa: |
| OSOKO BILKURA/2024/2 | Udalbatza |

| BILKURAREN DATUAK | |
|-------------------|--------------------------|
| Deialdi mota | Ohikoa |
| Eguna | 2024ko otsailaren 26a |
| Iraupena | 19:00etatik 19:40era |
| Tokia | Osoko bilkuren aretoa |
| Udalburua | Javier Gorbeña García |
| Idazkaria | Ziortza Guinea Gutiérrez |

| BILKURARA BERTARATU DIRENAK | | |
|-----------------------------|--|-------------------|
| NAN zk. | Izen-abizenak | Bilkura n izan da |
| 18593219L | AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ | BAI |
| 16032037W | CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA | BAI |
| 18598103G | ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN | BAI |
| 16287057K | EDUARDO LORZA GARCÍA | BAI |
| 72748486S | IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA | BAI |
| 30641952H | JAVIER GORBEÑA GARCÍA | BAI |
| 72841412K | MAITE COBO BARCALA | BAI |
| 72831885Q | MIKEL ISASMENDI TXURRUKA | BAI |
| 72841383S | XABIER NAFARRATE CADIÑANOS | BAI |

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

A) EBAZTE-ZATIA





Onestea 2024ko urtarrilaren 31n eginiko aurreko bilkurako akta

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrik egin nahi dion 2024ko urtarrilaren 31n eginiko aurreko bilkurako aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, akta onetsi da.

659/2022 espedientea. 2023. urterako Udaleko langileen ordainsariak eguneratzeko irizpidea

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. artikuluko bigarren paragrafoak honako hau xedatzen du:

“Bi. 1. 2023an, sektore publikoko langileen ordainsariek ezin izango dute % 2,5etik gorako igoera orokorrik izan, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderatutako bi aldiak homogeneoak izanik, bai langile kopuruari, bai horien antzinasunari erreparatuta.

2. Halaber, hala badagokio, honako igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, eta bi kasuetan, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuari (KPIH) lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko irailako KPIH aurreratuaren batuketaren emaitza ehuneko 6koa baino handiagoa izanez gero, ordainsariei beste ehuneko 0,5eko igoera aplikatuko zaie.

Ondorio horietarako, behin INE Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu eta gero zein diren iraileko KPIH aurreratuaren datuak, onartuko da igoera hori aplikatzea; horretarako, Ministro Kontseiluko erabaki bat emango du, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.

b) Barne Produktu Gordinaren (BPGd) bilakaera izendunari lotutako igoera 2023an. BPGd izendunaren igoera Gobernuak aurrekontu-lege hau egiteko erabili den koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoaren berdina edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, behin EIN Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGd-aren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onartuko da; horretarako, Ministro Kontseiluko erabaki bat emango du, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.

3. Gizarte-ekintzako gastuak ezin izango dira handitu, oro har, 2022koekin alderatuta. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanaren kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak dira, eta horien helburua sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea da.

Hiru. Sektore publikoan ekarpenak egin ahal izango dira enpleguko pentsio-planerarako edo aseguru-kontratu kolektiboetarako, baldin eta aurreko apartatuan ezarritako igoera globala gainditzen ez bada.

Laugarrena. 1. Langile lan-kontratudunen soldata-masa, zeina artikulua honetako Bi apartatuan aurreikusitako gehieneko ehunekoan igo ahalko baita, konparatzen diren bi aldiatarako modu homogeneoan, langile horiek aurreko urtean sortutako soldata guztiek eta soldataz kanpoko ordainsari guztiek osatuko dute.

Nolanahi ere, honako hauek salbuespen izango dira:

a) Gizarte Segurantzaren prestazioak eta kalte-ordainak.





b) Enplegatzailleak Gizarte Segurantzako sistemara egindako kotizazioak.

c) Lekualdatzeei, etetei edo kaleratzei dagozkien kalte-ordainak.

d) Langileak egindako gastuen kalte-ordainak edo ordejarriak.

2023ko uztailaren 13ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, 2023rako aurreikusitako zenbatekoak aplikatzea onetsi zen funtzionarioaren sailkapen-talde edo -azpitaldearen arabera, oinarritzko ordainsarietarako eta betetzen den lanpostuaren mailari dagokion lanpostu-mailako osagarriaren mailarako, eta % 2,5 handitzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zegoen lanpostuari esleitutako berariazko osagarriaren zenbatekoa, hori guztia 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginekin.

2022ko KPIHaren aldakuntza % 5,5ekoa izan zen, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko urtarrilaren 13an argitaratutako informazioaren arabera. Bestalde, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko irailaren 28an egiaztatu du 2023ko iraileko KPIH aurreratua % 3,2 dela. Ondorioz, berresten da 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren baturak 2022ko eta 2023ko ordainsari-igoera finkoen baturaren ehuneko 6 gainditzen duela, eta, beraz, aipatutako 19 Bi.2.a) artikuluan aurreikusitako gehieneko ehuneko 0,5eko soldata-igoera gehigarria aplikatu behar da.

Ondorio horietarako, Ministro Kontseiluaren 2023ko urriaren 3ko erabakiaren bidez, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 0,5 igotzea onetsi zen, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi.2.a) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz. Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2023ko urriaren 23ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi zen ehuneko 0,5eko igoera gehigarria aplikatzea oinarritzko ordainsarietan eta lanpostu-mailako osagarrian, eta Zigoitiko Udaleko funtzionarioen berariazko osagarriaren ehuneko 0,5eko igoera gehigarria onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginekin.

2023ko EAOLren 19.Bi 2b) artikuluan ezarritakoa bete da; izan ere, EINEK aurreratutako 2023ko BPGd izenduna ehuneko 6koa edo handiagoa da, zehazki, ehuneko 8,6koa, eta, beraz, bidezkoa da ordainsariaren ehuneko 0,5eko igoera osagarria aplikatzea.

Ikusi da Aurrekontu eta Gastuetako Estatu Idazkaritzaren 2024ko otsailaren 7ko Ebazpena, Ministro Kontseiluaren 2024ko otsailaren 6ko erabakia argitaratzen duena. Bertan, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2.b) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarietan ehuneko 0,5eko igoera onesten da.

Ez da beharrezkoa aurrekontua aldatzea, kreditu egokia eta nahikoa dagoelako proposatutako langileen ordainsarien aldaketari aurre egiteko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua arabera, Udaltzaren eskumena da *“langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkako zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea”*. Horrenbestez, Udaltzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Ehuneko 0,5eko igoera gehigarria aplikatzea oinarritzko ordainsarietan eta lanpostu-mailako osagarrian, eta Zigoitiko Udaleko funtzionarioen berariazko osagarriaren ehuneko 0,5eko igoera gehigarria onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginekin.

BIGARRENA.- Langile lan-kontratudunen ordainsarien beste ehuneko 0,5eko igoera gehigarri bat onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginekin.

HIRUGARRENA.- Adostutako soldata-igoerei dagozkien atzerapenak 2024ko martxoko nominan ordainduko dira.

LAUGARRENA.- Zigoitiko Udaleko langileei erabaki honen berri ematea.





131/2024 espedientea. Martxoaren 8ko (Emakumeen Nazioarteko Eguna) erakunde-adierazpena proposatzea

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da munduko jendarte guztietan emakume guztiek gizonen aurrean bizi duten desberdintasun-errealitatea ikusarazteko. Herritarrak oraindik eman gabe dauden urratsen inguruan sentsibilizatzeko eguna da, baina baita lortutako eskubideak ospatzeko eguna ere.

Garrantzitsua da ibilbide-orria markatzeko nondik abiatzen garen jakitea, eta, horregatik, ezinbestekoa da bizi dugun errealitatea ezagutzea, datuek errealitatea ukatzea zaila egiten baitute.

Emakundek egindako Euskadiko emakumeei eta gizonei buruzko zifren azken txostenareni arabera, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerak nabarmena izaten jarraitzen du bizitzaren eremu guztietan. Dauden egiturazko desberdintasun eta honetan oinarritzen den sistema patriarkalaren testuingurua ematen duten datuak ematearren, ikus dezakegu emakume unibertsitarioen kopurua gizonena baino handiagoa dela, baina, hala ere, langabezia-tasa handiena emakumeek ere betetzen dutela.

Gainera, aldi baterako kontratuak dituzten emakumeen ehunekoa % 90ekoa da, eta, batez beste, urtean 10.000€ gutxiago kobratzen dituzte beren lankideen lan bera egiteagatik. Zaintzagarriko eszedentzia gehienak emakumeek eskatzen dituzte, eta amak dira oraindik ere haurren zaintzaile nagusiak. Ez dugu ahaztu behar gai horiek guztiek zuzenean eragiten dutela gero jasotzen dituzten pentsioetan.

Bestalde, medikazioen kontsumoa handiagoa da emakumeen kasuan, eta jada badaude hiper-medikatuak bizi diren emakumeak baita, emakumeei sendagai lasaigarriak emateko erraztasunaren berri ematen duten ahotsak; gainera, horiek dituzte osasun mentalarekin lotutako gaixotasun gehienak.

Gizarte-prestazio gehienak emakumeek eskatzen dituzte, eta pobreziako eta gizarte-bazterkeretako arriskuan dauden biztanle gehienak ere emakumeak dira, pobreziak beti izan baitu emakumearen irudia.

Laburpen hau egungo egoeraren zertzelada labur bat baino ez da, deskribatu ditugun eremu bakoitzean gehiegi sakondu gabe. Datu horiek herritarren hausnarketa bultzatu behar dute, eta administrazioek ez dugu ahaztu behar benetako berdintasuna lortzeko dugun konpromisoa eta betebeharra, eta jendartearen erdiak oraindik bizi duen indarkeria-, desberdintasun- eta diskriminazio-egoera hutsaldu nahi duten diskurtsoetatik urrundu behar gara.

Horregatik guztiagatik, **Zigoitiko Udalak** bere gain hartu behar du berdintasunezko jendarte bat eraikitzekeo dugun erantzukizun sozial eta politikoa. Horretarako, politika feminista transbertsalak diseinatu behar ditugu, errotik eraldatzen dutenak eta eremu guztietan eragiten dutenak, indarkeria matxistak eta emakumeentzako bidezko bizitza ezabatzen laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

LEHENENGOA. Berdintasun-egitura baliabide ekonomikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko.

BIGARRENA. Emakumeekiko eta mugimendu feministarekiko elkarrizketa ahalbidetuko duten espazioak bultzatzea.

HIRUGARRENA. Alertari eustea, udalak egiten dituen kontratazioetan, dirulaguntzetan, ordenantzetan eta arauetan beharrezkotzat jotzen den kasuetan ekintza positiboak edo berdintasun-klausulak sar daitezen.

LAUGARRENA. Gorbeia Eskolako berdintasun-arduradunekin koordinatuta egiten den lanarekin jarraitzea, hezkuntzako komunitatearekin berdintasunaren eta tratu onen aldeko





lana bultzatzeko.

BOSGARRENA. Sexuaren/generoaren arabera bereizitako datuak biltzea, Zuiaren errealitatea ezagutzeko, espazioen erabilerari, ekipamenduei, zergen ordaintetari, kultura- eta kirol-jarduerei eta abarri dagokienez.

193/2023 espedientea. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denborari buruzko informazioa, 2024ko laugarren hiruhilekoa

Alkate jaunak Osoko Bilkurari 2023 ekitaldiko hirugarren hiruhilekoan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denboraren kontu eman dio. Ordaintzeko legezko batez besteko ordaintzeta-aldia betetzearen berri eman du. 25,61 egunekoa da, eta ez ditu 30 egunak gainditzen:

| 2023. URTEA | 1. HIRUHILEK OA | 2. HIRUHILEK OA | 3. HIRUHILEK OA | 4. HIRUHILEK OA |
|---|------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|
| Ordaintzen zenbateko guztia (euroak) | 352.236,80 | 870.359,00 | 421.083,63 | 724.923,46 |
| Ordaindutako eragiketen ratioa (egunak) | 32,56 | 27,69 | 35,98 | 30,85 |
| Ordaintzeke dauden eragiketen zenbateko guztia (euroak) | 174.352,35 | 1089,00 | 139.045,04 | 300.683,57 |
| Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa (egunak) | 25,82 | 17 | 2,13 | 12,98 |
| Ordaintzaren batez besteko denbora (egunak) | 30,33 | 27,68 | 27,58 | 25,61 |

B) KONTROL-JARDUERA

7tik 67ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0007 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, EIOZaren behin betiko likidazioa onesteko]

2024-0008 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 1ean aurrekontuaren luzapena onesteko]

2024-0009 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 1/2024 kreditu-gerakina aurrekontuan erantsi dadin onesteko]

2024-0010 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina eraberritzeko obran 20.





ziurtagiria onesteko]

2024-0011 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, langileei aurrerakina emateko]

2024-0012 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0013 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/1 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0014 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari BEHIN-BEHINEKOZ aparkatzeko txartela emateko]

2024-0015 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko EEPan hautagai onartuak eta baztertuak behin betiko onesteko eta merezimenduak egiazta ditzaten eskatzeko]

2024-0016 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoan saneamendu-sarea hobetze aldera obraren segurtasun- eta osasun-plana onesteko]

2024-0017 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gizarte eta Kultur Etxeko Zigoitia aretoan antzerkirako errezelak instalatze aldera zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0018 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 27an "Entrecajas-kutxartean" antezlanerako zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0019 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024. urtean Gorbeia Eskolan "Gu ere bertsotan" programa garatze aldera zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0020 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 3. poligonoko 20. partzelan dagoen etxebizitzan, lizentziarik gabeko estalkiaren birgaitze-obrak legezztatzea agintzeko]

2024-0021 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udalerrriaren barneko garraiorako zerbitzu-kontratua adjudikatzeko]

2024-0022 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024. urtean kultur ikuskizunetarako soinu- eta argi-zerbitzu teknikoaren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0023 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024. urtean Eguneko Arretarako Landa Zentroko erabiltzaileentzat arte eszeniko terapeutikoaren tailerra gauzatu eta familiekin topaketak egite aldera zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0024 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarrako obraren 11. ziurtagiria onesten zuen alkatetzaren ebazpeneko akats aritmetikoa zuzentzeko]

2024-0025 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0026 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urtarriletik maiatzera bitarteko kirol- eta kultura-jardueren zerga-bilketako erroldak onartzeko]

2024-0027 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Oketa Alai Eguna egiteko udal-pilotalekua erabiltze aldera baimena emateko]

2024-0028 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Mendarozketako 6. poligonoko 22. partzelan berotegia eta hesiak ezartze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0029 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024an Udalak sustatutako kultur ekimenetarako dirulaguntzaren eskaera onartzeko]

2024-0030 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko otsailaren 24an "Bihar arte soilik-Sólo hasta mañana" antezlanerako zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0031 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, arma-txartela emateko]

2024-0032 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, espedientea atzera egin eta AKPA aldatuak onesteko]

2024-0033 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 688. partzelan dagoen etxebizitzan barnea eraberritu eta oraingo galdararen ordeztu geotermiako ezartze aldera obra txikiaren lizentzia ezesteko]

2024-0034 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urtarrileko nominak ordaintzea]





onesteko]

2024-0035 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Manurgako 2. poligonoko 840. partzelan sukaldea eta bainugelak eraberritze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0036 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024an Kontzejuetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdia]

2024-0037 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024. urtean kultura-, kirol- eta gizarte-jardueretarako dirulaguntzen deialdia onesteko]

2024-0038 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Elosurako bidea konpontze aldera dirulaguntzaren eskaera onesteko]

2024-0039 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko martxoaren 23an "Almacenados" antzezlanerako zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0040 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/3 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0041 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Gopegiko 6. poligonoko 1.221. partzelan dagoen etxebizitzan aerotermia-sistema instalatze aldera obra txikiaren lizentzia ezesteko]

2024-0042 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zati proportzionala itzultzea ezesteko]

2024-0043 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan helbidea zuzentzeko]

2024-0044 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan helbidea zuzentzeko]

2024-0045 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, inskripzioa behar den modukoa ez izateagatik biztanleen udal-erroldan ofizios baja emate aldera espedientea hasteko]

2024-0046 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, inskripzioa behar den modukoa ez izateagatik biztanleen udal-erroldan ofizios baja emate aldera espedientea hasteko]

2024-0047 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitia udalerrian jai tradizioletarako dirulaguntzen deialdia onesteko]

2024-0048 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023-2024 ikasturtean euskararen ikaskuntza eta erabilera indartze aldera dirulaguntzen deialdia onesteko]

2024-0049 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 6. poligonoko 1.218. partzelan ataripea eraikitze obraren azken dokumentazioa aurkezte aldera azken epe luzaezina emateko]

2024-0050 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Gopegi guneko 6. poligonoko 1.228 partzelan dagoen etxebizitzan aerotermia instalatze aldera obra-lizentzia emateko]

2024-0051 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitia izeneko VI-10.180 ehiza-barrutia errentatze aldera kontratazio-espedientea onesteko]

2024-0052 DEKRETUA [Ebazpena, Gorbeia Eskolan heziketa sexu-afektiboaren urteko programa gauzatzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0053 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, behin betiko baja emateagatik, TMIZaren zati proportzionala itzultzeko]

2023-0054 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Acosta/Okaiztako 5. poligonoko 162. partzelan obren gauzatzeko-proiektu baldintzatua onesteko]

2024-0055 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023-2024 ikasturtean musika-prestakuntzaren programarako Dominizubi musika-elkarteari dirulaguntza izenduna emateko: bigarren ez ematea eta zati batean aurreratzea]

2024-0056 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko Emakumeen Nazioarteko Egunerako berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko aldera jardueren programazioa onesteko]

2024-0057 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Manurgako 2. poligonoko 350. partzelan finka





itxi eta hodiarekin pasabidea ipintze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0058 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, energia berriztagarria instalatzeagatik OHZaren hobaria ematea ezesteko]

2024-0059 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, S. Esteban baselizan kultur ondarearen kontserbazio-jarduketetarako dirulaguntza-eskaera onesteko]

2024-0060 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Basapiztia II jarduera egin dadin Udalaren pilotalekua, bolatokia eta sukaldea erabiltze aldera baimena emateko]

2024-0061 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina eraberritzeko eta handitzeko obran 21. ziurtagiria onesteko]

2024-0062 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko KORRIKA KULTURALari dagokion gastua onesteko]

2024-0063 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Larrinoako 3. poligonoko 2.028 partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak instalatzeko lizentzia emate aldera epeak eteteko]

2024-0064 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 1.281. partzelan lizentziarik gabe egindako obrak (panel fotovoltaikoak instalatzea) legeztatzea agintzeko]

2024-0065 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarrako obraren 11. ziurtagiria onesten zuen ebazpena zuzentzeko]

2024-0066 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024. urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onesteko]

2024-0067 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/4 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

Alkatetzaren txostenak

LAPURRETAK

Alkate jaunak jakinarazi du azken egunetan Zigoitia berri izan dela hedabide askotan udalerrian izan diren lapurreta ugariengatik. Aipatu du agerraldi mediatiko horren ondorioz, itxuraz, lapurretak gutxitu direla.

OBRAK PILOTALEKUAN

Alkate jaunak jakinarazi du areto-futbolaren eskola-kirolak aste honetan amaitzen duela lehen fasea eta Gurasoen Elkartek adierazi dio bigarren faseko partidak planifikatzen saiatuko direla martxoaren 23an eta apirilaren 13an pilotalekuan ez jokatzeko. Hala, eraikuntza-entresak aste horietan pilotalekuko estalkia sendotzeko obrak garatuko ditu.

C) ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaerak eta galderak

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak galdetu du Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren izapideei buruz. Alkate jaunak erantzun du HAPOa idazteko lanei berriz ekiteko





zerbitzu-kontratuari dagokionez, eskaintzak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 1ean amaitzen dela, eta aditzera eman du, dirudienez, enpresaren batek eskaintza aurkezteko interesa duela.

ENPRESA HORNITZAILEEK JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak galdetu du jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatze aldera enpresen fakturazio-bolumenaren adierazpenen gaineko sarrera anitzei buruz.

Idazkariak zinegotziari zerga-kontzeptua azaldu dio.

LARRINOAKO SANEAMENDU-OBRA

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak galdetu du Larrinoako saneamendu-obrak izapidetzean Gopegiko Administrazio Batzarrari entzun zaion, obrek eragiten dioten administrazioa den neurrian.

Alkate jaunak erantzun du udal-aparejadorea haiekin harremanetan jarri dela. Era berean, obraren garapena azaldu du.

BENGOLARRAKO TABERNAREN KALERATZEAREN AURREAN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak galdetu du 6.000 eurotik gorako fakturari buruz. Bengolarrako kirol-instalazioetan kokatuta dagoen tabernako emakidaren azken adjudikaziodunak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren gainekoa da.

Idazkariak jakinarazi du faktura hori udal-abokatuaren ordainsaria ordaintzeko dela. Azaldu du helarazi zaigula alderdi errentariaren nahiak ezesten dituen epaia. Hala, epaileak esan du administrazioaren ikuspegitik Udalak sustatu zuen kaleratzeko prozedura zuzena dela. Epaiak dio kaleratze-egintzaren aurkako administrazio-errekurtsoren bidez ezin dela alegatu aprobetxamendua azkentzeko orduan legez kanpokotasunik.

Idazkaritzaren eginbidea:

Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, akta 2024ko martxoaren 25eko bilkuran onetsi da.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

